

Nu!

www.noaia.com




Alejandro Tapiaren lanak,
Zarauzko Sanz Enean



Pello eta Joan Mari,
berriz ere etxeko epelean

LOURDES LARRAÑAGA

estetika zentroa



Iruzu kalea, 12-behea Telf: 943 36 28 67

- Gorputz perfektu baterako edertasun tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak eta dieta pertsonalizatuak
- Laser medikua

APROBETXA
ITZAZU
BAZKIDE
ABANTAILAK!



Tapak urtez urte



**Koadernatu
2002ko
Noaua!
guztiak!**

Isabel Ernaola

ESTETIKA ZENTROA

Apirilaren 5ean
zabalduko dugu!

Inaugurazio ekitaldia
12:00tan



*Aurpegiko tratamendu bereziak.
Apirilan %50eko beherapena*



**Era guztietako
estetika eskaintzak,
pedikura barne**

Erreka txiki, 2 - Telf: 943 36 03 72 - Usurbil

Txirrikitutik



Egile ezezaguna, 1974. urtea,
Diego Lopez

Santuenea

Santuenea auzoak zerbait berezia izan badu, urteetan zehar Eskubaloien erreferentzi gune bilakatu izana da. Bertako auzotarrek herriko beste zenbaitekin batera, berebiziko grina izan dute eskubaloiarekiko. Santuenean, urte askotan egon den eskubaloizelaiak ere bertan darrai nahiz eta gaur egun beste zenbait jarduetarako ere erabiltzen den. Udalak leku hau estaltzea aurreikusi berri du arau subsidiario berrietan.

Txirrikituko atalak eskaintzen duen txoko hau aprobetxatuz, argazkiaren jabeak hala eskatuta, garai horiek isladatzen dituen argazkia jarri dugu aspaldiko oroitzapenak gogora ekarriz. Argazkia 1974. urtean atera zen, Santueneako eskubaloiko pistan. Bertan agertzen den taldea Usurbil Dicoproga herriko eskubaloit aldea da eta kirolarien izenak hauexek dira (ezkerretik eskubira eta goitik behera): Kiko Lozano, Josi Intxausti, Jose Mari Argote, Luis Mari Irazusta, Jose Miguel Udabe, Luken Goya (entrenatzailea), Miguel Zulaika, Gustavo Barandiarain, Javier Iradi eta Manu Mesa.

Zalao Arnaiz Ibarguren.
fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net



OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta Noaua!ko Txirrikituko atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9:00etatik 14:00etara). Bestela, 943371951 telefonoan edo fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net e-postan aurkituko gaituzu. Garai bateko argazkien bidez gure herria hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Anima zaitez!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda

Kazetariak: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea: Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea: Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak: Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbiet, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika: Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEAN, OLATZ ALTUNA _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

KONTZEJU TXIKIA _____ 10. ORR.

Arau subsidiario berriak
onartze-bidean dira



ALEJANDRO TAPIAREN ERAKUSKETA BERRIA _____ 11. ORR.

ELKARTASUN EGUNA, ARRAKASTATSUA _____ 12. ORR.

APIRILAREN 6AN IRITSIKO DA KORRIKA 13 _____ 13. ORR.

PELLO ETA JOAN MARI, ETXEKO EPELEAN _____ 14. ORR.

ARETO FUTBOL TXAPELKETA BERRIA _____ 17. ORR.

LEHIAKETA ETA DENBORAPASAK _____ 19. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal presoak
Euskal Herrira!

AZALA

Argiako egoitza parean ateratako erretratua.

Zutabea



Informatzen duena isildu

OLATZ ALTUNA

Ez dut euskaraz hitz egingo, ETArek hizkuntza baita hori" (M. Azurmendi, Diario de Noticias 03-01-19), edo "nazionalismoaren osagai fanatikoak gaur egun euskaraz biltzen dira" (Eduarne Uriarte, Abc 03-02-26). Hauen antzeko ideiak kaleratzen dira ia egunero komunikabide ez abertzaleetan. Egunkaria itxi aurreko prestaketaren traza du horrek.

Operazioaren inguruan hala diote gainera "euskaldunen askatasuna eta eskubideak, kultura, pentsamendua eta beraien hizkuntza (euskaraz) askatasunean adierazteko aukera, babesten eta defendatzen dituen operazioa da honako hau" (A. Acebes, El Correo 03-02-21). Gure hizkuntza defendatzera etorri omen dira, hamaika entzuteko jaioak gara!. Eskubideak defendatzen hasita, ez zitzaizkion bururatu Pellorenak eta Juan Marirenak errespetatzea. Madrileran eraman zituzten, eta bertan gupidarik gabe inkomunikatu, eta torturatu. Horren aurrean, hedabide eta kazetari espainolek beren lanari xorrotx heldu diote: "Guardia Zibilak Pedro Zubiria Caminoren bizitza salbatu zuen atzo, bere almohadaren fundarekin ito nahian ari zela" (Abc, 03-02-25). Torrealdaire buruzko astakeriak ere irakurri ahal izan dira: "El libro negro del euskara liburua idatzi duen akademikoarengatik sufritzen du Euskaltzaindiak. Liburu hori, ez deskuidatu gero, (...) euskararen aurkako etsaien zerrenda bat da. Euskaltzaindiari gure segurtasuna bost axola zaio" (C.M Gorriarán, Abc 03-03-05). Jakina, tratatu txarren inguruan aipamen gutxi egon dira, horrelako-

ak besterik ez: "Guardia Zibilak ez du torturatzen, gainera kasu (operazio) honetan hiritarrei dagokien eskubide eta berme guztiak aplikatu dira" (A. Acebes, 03-02-26); edo, "Aspalditik (tortura) ETA eta bere inguruaren propaganda tresnen aipamen erritual bat besterik ez da, sinesgarritasun gutxi duena" (El Pais-ko editoriala, 03-03-09); edo, "Salatzaileak (Martxelok) itxura fisiko bikaina zuen, kazetari bere ustezko kalbarioaren berri eman zienean" (A.Vidal-Quadras, La Razón 03-02-28).

Bada azterketa sakonagoak egitera atrebitzen denik ere: "ETArekin bukatuko dugu Konstituzionalistak beldurra eta konplexuak alde batera utzi, eta oxigeno ideologikoa ematen dien ingurua desagerrarazten dugunean (...), inguru hori egitura politiko, sozial, mediatiko, ekonomiko eta hezkuntza arloan txertatua dago, eta hauen helburua terrorismoaren zabalpena da" (G.Mora, La Razón 03-03-04).

Aurrekoa mostra bat besterik ez da. Horrelako trataera ematen diote gehienetan kazetariak eta zutabegileak euskal auziari. Horrek egunero nozitzen dugun gatazkaren konponbidea zailtzen du, nabarmen. Hau idazten ari naizela jakin dut Joxe Domingo atxilotu dutela. Orain hurrena atxilotu zutenean tortura beldurgarriak jasan zituen, baina komunikabideek orduan ere ederki estali zuten gertatutakoa.

Panorama honetan, euskal gatazkari buruzko informazio fidagarria jasotzeko aukera bakarrenetarikoa isilarazi dute: Euskaldunon Egunkaria.

Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain • Ainhoa Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

Hurrengo alea: apirilak 11. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** apirilak 4.

Postaz: Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
e-posta bidez: noaua.k.e@euskalnet.net



ZUMET MENU K

(Gutx n z 21 un nez f)
- Etx k h t f - r n s t
- l u r r z
- Its sk nts l h z r truf z r z
- Z u x n ur z t r k t s sk
s lts z
- s z u n u u r , n t k l
r z h r s lts t n
- Etx k z k n uruk n st n
- t k f

Tx k 1, 11, 3 27 13

r z 27, 5 ur (rts n k)



h k k l , 4
T H 43 3 57 42

LK T
UT ZE ITZU

F BT K
ZKI K
ETXK IKTU K
K NOEL TU K

Ika-mika

UHL udal hauteskundetan aurkeztuko da

Otsailaren 16an eginiko aurkezpenean herritar askok bat egin zuten Usurbilgo Herri Lan Elkargunearekin. Euskal Herrian gertatzen ari diren gehiegikeri eta eraso bortitzen aurrean kezkatuta gaudelako abiatu genuen plataforma.

Honako hiru oinarriak biltzen gaituzte UHL Elkargunean:

1.- Autodeterminazio eskubidearen defentsa Euskal Herri osoarentzat: Autodeterminazioa da Euskal Herriak behar duen aldaketa politikoaren ardatza, eskubide zibil eta politiko guztien berma ekarriko duena herri honetara. Euskal Herriarentzat autodeterminazioarako garaia iritsi denez, honen aitorzari begira prozesu dinamiko eta erreala sustatu nahi dugu, dinamika ezberdinak jorratuz, zeregin honetan ari diren mugimendu eta subjektu guztiekin elkarlanean.

2.- Oinarrizko eskubide demokratikoen urraketa salaketa: Euskal Herriak eskubide oro ukatu eta urratuak ditu bi estatuen aldetik eta hamai-ka eraso pairatzen ditu hizkuntza, kultura edo arlo politikoan ere. Herri

honen bihotza eta etorkizuna akabatu nahi dira, salbuespen egoera batean bizitzera kondenatu nahi gaituzte, eraso polizial, judizial nahiz politikoen bitartez. Egoera honen aurrean, inoiz baino beharrezkoagoa gertatzen da erantzun trinkoa ematea.

3.- Ezkerreko ikuspegia: Euskal Herria aske nahi dugun heinean, gizar-te eredu berriaren aldekoak gara, gizar-te justizian eta berdintasunean oinarritutakoa. Euskal Herrian bizi diren pertsona guztien bizi baldintzak hobetu nahi ditugu eta hori beharrezkoa ez ezik posiblea da gure herrian sortzen den aberastasuna era egokian banatuz gero eta gure lurra dituen baliabideen ustiapen orekatua eginez gero. Justiziaren lehenengo zutabea den berdintasunaren alde lan egin nahi dugu, jatorriaren, generoaren edota ideien araberrako diskriminazio oro behin betiko ezabatzeko. Herrien eta pertsonen arteko elkartasuna gure ikurra da.

Hiru oinarri hauek ardatz hartuta, aurkezpen egunetik hona bilera ugari egin ditu plataformak. Gure buruari, besteak beste, jarri diogun lehen erronka maiatzaren 25ean egingo diren udal

hauteskundeetan aurkeztea izan da. Hauteskunde horietan hiru oinarri hauek present egon behar dutela uste dugulako aurkeztuko gara. Gure herriak merezi duela uste dugulako eta Usurbilek Euskal Herriari egin diezaiokeen eskaintzarik onena delako.

Baina, horretarako zuen laguntza ezinbestekoa dugu, izan ere, hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko zuen sinadura behar-beharrezkoa dugulako. Horregatik, **apirilaren 1etik 16ra bitartean sinadura bilketa** zabala bultzatuko dugu. Legeak eskatzen dituen sinadura kopurua lortzen ez badugu, ezingo dugu hautesle elkarte osatu eta aurkeztu. UHLek bere hautesle elkarte sortzeko egitasmoarekin bat egin baduzu, honako egunetan izango duzu aukera udal idazkariaren aurrean zure sinadura emateko:

- Apirilak 3, osteguna: 8:30 - 14:00

- Apirilak 10, osteguna: 8:30 - 14:00

- Apirilak 12, larunbata: goiz eta arratsalde.

Beraz, kontutan izan egun hauek eta eman zure sinadura, behar-beharrezkoa baitugu. Eskerrik asko.

Usurbilgo Herri Lan Elkargunea

ITURGINTZA

J SE
NGU EN

TEL 3 3 72

H n k n u z n n, s l z
USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K I N us , 2 I C
Tlf 3 37 7

2 I /
USU IL

ERRAZ IN
Igeltser tza

I rra

K I N us , I
T I F 3 3 / 2 7 1 3 S I 25
S ntu M 2 2 S S

I lts r tz

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

G L G
garraioak

ZABOR BILKET

TELF: 943 37 01 46

IGELTSE ITZ
t
INTU

Ja n f u . 7 8 3 3 5 5
2 1 3 2 3



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

D3 eta Kray taldeak, Akerra gaztetxean

Kaixo! Auzotar guztioi oraingoan ere hemen gatoz auzoko kontuetaz hitz egi-tera. Oraingo honetan ere, gaztetxeko gora beherak dakarzkigu. Aurrekoan, martxoaren 8an hiru talderekin egin genuen kontzertua.

Donostiako "fish brain" taldeak ireki zuen hard core azkarra proposatuz. Ondoren, "Dosis"ek kaña puntu bikaina ezarri zion gauari, eta azkenik, errematatzeke, Brigada Criminal lazkaotarrak. Giro bikaina izan genuen, jende ugari gerturatu baitzen oraingo honetan.

Honela, kontzertu kantuekin jarraituz, hurrengo ostiralean, martxoaren 28an, egingo dugun kontzerturako gonbidapena zabaldu nahi genizuke. Oraingo honetan Usurbilgo D3 eta

Lasarteko Kray taldeek ipiniko diote "soinu punttua" gaztetxeari. Ia animatzen zareten eta giro polit bat osatzen dugun.

Besterik gabe, hurrengo batean etorriko gara auzoko istorioez idaztera.



Udaberriarekin batera alaitasuna



ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Kaixo guztioi! Martxoaren 21ean sartu ginen udaberrian eta egia da jendearen jokaerarekin zer ikusi handia duela eguraldiak. Geroz eta gehiago nabari da eguraldi aldaketak sor ditzakeenak, ikusi besterik ez dago nola dagoen mundua...

Baino oraingo honetan, eguraldi onarekin egin ditzakegun gauzak gogora ekartzera natorkizue. Egia da ez dagoela urrutira joan beharrik paraje ikusgarriak ikusi ahal izateko. Eta nola ez, urrutira joan gabe, herrian bertan ikus ditzakegun bazterrak eta ibilbideak aipatu nahiko nituzke:

Mendira joateko: alde batetik, hor daukagu Andatza eta bide polita dago bertatik joanda Andatza alderako paraje mundiala.

Beste aldetik, Bordatxo mendiko hainbat eta hainbat bidexka zoragarri.

Baserriko bizitza ezagutzeko: hainbat nekazaritza-etxe ditugu herrian Urdaigan kokatzen den Zabalea; Zubietan bi, Barazar eta Karobi;



eta azkenik, Ibarrola kalezarren.

Zer edo zer xuabeagoa egin ahal izateko Zubietako buelta eta, nola ez, erribera aldetik Txokoalderainoko bidexka polita.

Eta denok jakingo dituzuen beste paraje eta bazter politak! Benetan polita baita gure herria, Usurbil!

Hurrengo arte lagunak!

Kalezarko Mugetan barrena

Denbora dezente igaro da tarte honetarako azken hitzak idatzi nituenetik, pentsa zenbat, artean hotz egiten baitzuen kalean, batzuentzat behintzat! Zeren azken asteetan gure auzunean ikusitakoarengatik badirudi hotza oso sentsazio erlatiboa dela. Egia da egun bikainak izan direla eta negu umel baten ondoren gustura hartzen dela horrelako eguraldi eguzkitsua, baina bati baino gehiagori uste dut gogorarazi behar zaiola neguaren eta udaren artean udaberria izeneko beste urtaro bat egon ohi dela, orain arte behintzat.

Lehen eguzki printzak azaldu orduko hori da hori jendearen eguzki gosea (edo erraldeak erakutsi nahia). Titi frexkerak, galtza motzak... sandaliak edota txankletak bakarrik falta izan dira! Batzuk oilategiko oilarraren pare jarrita eta besteak oilorik pertxenteen moduan apainduak izter eta paparrak erakutsiz! Ez dago ez hotz handirik batzuentzat!

Eguraldi kontuak eta jendearen joan etorriak uztartu nahirik gure auzoan barrena ibilaldira bat proposatu nahi dizuet (bai, eta eguzkizaleek brontzeatu polit bat hartzeko ere bai!). Kalezarko mugetan barrena, oinez nahiz bizikletaz egin ahal izateko ibilbidea.

Hasiera auzoko plazatik egin dezakegu herrigunerantz,

handik Oiloki aldetik Arratzain aldera igotzeko (lehenengo arnas estuak!). Segidan, Txantxon aldera hartu eta Bordatxo mendiari bira emango diogu. Horretarako, Etzabal baserri inguruan Arrate aldera hartu eta Aintzi eta Txakurtegia igaro ondoren, Artikularaino iritsiko gara.

Hemen, Arratzainera doan bidea utzi eta Polipaso aldera doan aldapari ekingo diogu. Igeldo gaineko bidera iristean (izerdia ondo lehortu eta gero, ziur botako dugula, eta ur trago ona jotakoan, hau ere beharrekoa izango baita) Igeldorantz jarraitu eta metro batzuk aurrerago Egioleta baserrirantz jaisten den bidegurutzea hartuko dugu, Igeldoko kanping-aren inguruan. Behin Egioletara heltzean, Urteta ondotik igaroz, Igaratik datorren bidearekin bat egingo dugu autopista inguruan.

Hau azpitik zeharkatu eta berehala ezkerreko bidea hartu eta Aritzeta aldera jarraituko dugu, hemendik jaitiera motz, baina gustagarri baten ondoren (hankek eskertuko baitigute) Txikierrira ailegatzeko. Puntu honetatik, Troiako aldapa malkartsua igotzea besterik ez zaigu garatzen.

Ibilaldi hau edonork preparazio handirik gabe egiteko modukoa da. Oinez edo bizikletaz, zuek aukeratu. Nork esan du Kalezar txikia dela?

Kalezar



ANDONI
UDABE

Udaberria

Urtaro polita, benetan, bizitzen jakinez gero, naturak bere biziko mugimendua eskaintzen digu gizakioi, eta horrela, sumatu dituzakegu mendi edo zelaia, zuhaitz eta landareak. Goizean, egunaren hasieran, entzun daitezkeen txorien doinu alai eta bikainak eta ikusi dezakegun eguzki ederra.

Eguraldi ederrarekin bukatu dugu negua eta hasi zaigu aurtengo udaberria. Gozatu ahal izan ditugu zeru urdinarekin lehenengo egunak, gauean ere. Hor ikusi dugu ilargi bete elurrez zuritutako mendietan dizdira eginez. Zer hobetik eskaini liteke gure begientzat!

Horrelako eguraldiak berak ematen ohi du haurretarako poza, eta arropa berriak ere hor daude, non nahi, bere kolore bizi eta moda berriarekin apaintzeko prest.

Auzoan horretarako ere baditugu dendak. Esate baterako, Truke jantziak eskaintzen du. Udaberriko moda polita emakumearentzat eta hau dena aipatu dudanez, hau ere esan behar

dut: Atxegalden, eserleku batzuk behar ditugu, jendea heldua ere badagoenez, etxetik gertu atsedena izateko.

Garizuma ere aurrera doa, eta Aste Santua ere badator laster. Giro onak laguntzen badu, ea atsedenean une bat hartzeko gai garen aipatutakoak gozatzeko.

Atxegalde



MARIA JESUS
URBIETA





ALFONSO VIDAL

Santuenea

Giroa suspertzen

Udaberrian gaude jadanik. Laster ordu aldaketa egingo da berriro, gero Aste Santua etorriko da eta azkenik konturatu orduko udan egongo gara. Hala ere, eguraldi ona azaltzen ari da eta hondartzetan jendea hurbiltzen ari da. Mendietan ehiztarien garaia bukatu da eta mendizaleok lasaiago ibiltzeko aukera izango dugu. Eskopetak hurrengo urtera bitarte gorde eta "kainabera" hasi prestatzen. Santueneako zubian jadanik jarri dituzte "kartel" batzuk abisatzen arrantzan egitea badela baina hilketarik gabe esanez.

Entzun duzue, arrantzan bai baina arraina hil gabe. Arau hau Santueneako zonalde honetarako da. Jakin dugunez, beste lekuetan badago ohiko arrantza egitea (arraina etxeratzea dagoela, alegia) baina ezin dugu

ziurtatu non.

Bestalde, esan behar dugu azken aldi honetan Santuenean giroa pixka bat aldatzen hasi dela. Aldizkari honetan irakurri ahal izan genuen bezala, Santuenea tabernan kontzertuak egiten hasi ziren eta erantzuna, jendearen aldetik, nahiko ona izan zen. Entzun dugu hilabetetik hilabetera azken larunbatean afari berezia antolatzen dela taberna honetan. Gazte jendea, zahar jendea, edozeinek dauka joatea. Afari hau Santueneako jendea elkartzeko modu bat da eta hori aprobetxatuz, gau ederra disfrutatzeko aukera ezin hobea. Horregatik, hemendik aurrera animatu eta azaldu zaitez.

Agur.

Apaiz-etxearen egoera, tamalgarria



SALOME PORTU

Urdaiaga

Udaberria etorri zaigu eta, eguraldi ona dela eta denok hasi gara udako oporretan pentsatzen. Baina ez ditugu ahaztu behar abuztuaren hasieran ospatuko diren gure auzoko jaiak, ezta hauek antolatzen diharduten gazteak ere.

Izan ere, orain hilabete batzuk pozik idazten banizuen esanaz elizako obrak amaituak zirela, eta emaitza paregabea zela, oraingo honetan, tamalez, ezin berdin esan. Emaitza ederra, baina kanpotik, barrutik lotsagarri baitago dena... lurra pipia janda, eskailerak erortzeko moduan, ituteak sabaian, eta abar luze bat.

Lehendik zaila bada festak antolatzea, are zailago jarri da gaia aurten, apaiz-etxearen egoera tamalgarria dela eta. Esan bezala, jaiak antolatze-ko lana hasia dute jada, baina beste urteetan izan ez duten zailtasuna topatu dute aurtengoan, urtero jendea biltzen zuen eliza atzeko taberna berezi hura aurten erabiltzeko moduan egongo den ari baitira pentsatzen.



Oraindik ere denbora badago konpondu beharrekoak konpontzeko, baina lehenago egoera nolakoa den ikusi behar da. Hala ere, jai batzordekoak nahiko buru-hausterekin ibiliko dira, jakinik atzean jartzen zen taberna hau zeharo betetzen zela San Esteban festetako gauetan.

Ea festak iritsi baino lehenago ematen diogun konponbiadea egoera honi!

Eskerrik asko

Hilabete eta erdi denbora asko dela ematen duen arren, berriz ere hementxe nauzue tartetxo hau betetzeko asmotan.

Neguaeren hondarrean jasandako eraso maltzurak, Egunkariaren itxiera, Argia eta Jakinen miaketak, atxiloketak eta abar luze batek tristoraz bete arren, anaia libre ikusteak irrifarra itzuli dio gure familiari.

Jasan behar izan ditugun artean kartzelara egindako sartu irtenak urriak izan badira ere, azkenengo bisitan ikusitako neska koskor haren begirada sakona (burni eta kristal lodi hura zulatze modukoa) burutik ezin kendu nabil.

Atxilotutako batzuk atera diren arren, beste hiru lagun barruan utziak ditugu oraindik, eta horien aurretik berriz, preso zerrenda luze bat ere. Espetxeak orduan eta beteagoak ikusten ari garen garai hauetan erantzun zabalagoak emate-

ko formulak jorratzen segi beharko genukeela pentsatzen dut.

Bitartean, une samin hauetatik ateratzen lagundu diguzuen guztiei, eskerrik asko.



Aginaga



**LONTXO
ZUBIRIA**

Udaberria, aro berria

Bukatu zaigu dagoeneko negua. Aurtengoa, nahiko hotza eta euritsua izan da. Zentzu horretan, portatu dela esan beharko dugu, garaian garaiko eguraldia egin behar baitu. Hori da legea. Hortaz, urtaro berria heldu zaigu eta horrekin batera, gure dinamika zeharo aldatzen zaigu, izan ere, eguraldiaren epeltasunarekin eta egunaren luzatzearekin, beste indarberri bat somatzen baitugu gure bizitzako ekintzetan.

Zubietako herriak ere, nabarmen aldatzen du bere dinamika udaberrian; izan ere, aro horretan bisitarien gehikuntza handia nabaritzen baitugu, gure herriak eskaintzen duen abantailak aprobetxatzeko asmotan: paseatu, plazan pilotan ibili, herriko jatetxetan bazkaldu... Aktibitate hauek guztiak beste itxura ematen diote gure herriari, asteburuetan nabaritzen dena, kanpotar asko baitira guregana hurbiltzen direnak.

Baita ere, udaberriak, beste motatako dinamika bat dakar gure herrira, hala nola, pilota plaza librean. Izan ere, joko garbia eta errebotea urtaro honekin jartzen baitira martxan, eta herriko pilotariak gure joku zaharretan arituko dira beste urte batez. Lehenbizi iparraldeko txapelketa jokatu dute, eta gerora, udaran, erreboteko Endika Abril txapelketa. Espero dezagun aurtengo denboraldian eguraldiak laguntzea, izan ere, beharrezkoa baitugu txapelketak normaltasunez garatu daitezen. Aurtun ere, iparraldeko pilotariak etorriko zaizkigu bisitan, gure pilotarien kontra jokatzeko.

Azkenik, espero dugu etxean eta frontoiko obrek, aurtengo udaberri eta udaran, bultzada handia jasotzea, ustezko eguraldi onaren laguntzaz, zubietar asko baikaude proiektu hoién zain eta negua pasa ondoren, orain baita momentua lanei bultzada eraginkor bat emateko unea. Hala bedi.

Zubiet



**MIKEL
BENGOETXEA**

Batasunaren ilegalizazioa salatu zen udalbatza plenoan

Martxoaren 20an ezohiko eta premiazko udalbatza plenoa egin zen udal aretoan. Sozialista Abertzaleak taldeak aurkezturiko mozioak EA alderdiaren babesa jaso zuen. EAJ/PNV alderdiak abstentzioari heldu zion. PSE-EEko ordezkaria ez zen azaldu. Honela dio mozioak.

Euskal Herrian, bereziki azken urteotan jasaten ari den eraso bortitzaren atal berri baten aurrean gaude. Ez da hilabetea igaro Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik eta orain Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna erakunde politikoak legez kanpo jarri ditu Estatu espainiarrak.

Egia esan, alde zurretik ondo iragarritako neurria da honakoa. Sistema demokratiko baten barruko erabaki juridiko eta legezkotzat jantzia izan den arren, ondotxo dakigu Espainiako interes politikoaren neurria taxututako legea izan dela. Itxurak ere ez dituzte gorde. Marka guztiak hautsiz, Epaitegi Gorenak lau egun nahikoa izan ditu bere ebazpena kaleratzeko, edo hobeto esanda, idazteko, erabakia aspaldi hartua baitzuen nahiz eta jakin horrelako neurriek ez dutela, inolaz ere, gatazka politikoaren konponbidea ekarriko.

Oraingoan ere, etengabe esaten ari garena egiaztatu egin da: eraso hauen guztien helburua Euskal Herria bera da. Alabaina, indarrean jarriko dituzten legeak gorabehera, ideiak eta herri



MARTXOAREN 20KO UDALBATZA GERRAREN AURKAKO BILKURA EGIN ZUTEN ZINEGOTZIEK.

baten partaide sentitzeko eta izateko erabakia ezin direla ilegalizatu dioguk eta, legeak lege, gure identitatea, gure kultura, gure hizkuntza eta burujabe izateko gure borondate irmoa ezingo dute deuseztatu.

Edozein abertzale eta demokratik egiaztapen hauekin bat egiten duela konbentziturik, bidegabekeria eta injustizia larri hauen aurrean erreakzionatzeko deia egiten dugu. Bide horretan ondoko puntuok onar ditzala eskatzen diogu udalbatzari:

1. Ideia eta proiektu politikoaren alde ekiteko, elkartzeko eskubidea aldarrikatzea.
2. Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna erakunde politikoaren ilegalizazioa salatzea.
3. Datozen egunotan egingo diren mobilizazio deialdiekin bat egitea eta ondo garatu daitezkeen bitartekoak jartzea.
4. Erabakiok herritarrei jakinaraztea.

NEKAZARIENTZAT DHARRA

Ur kontsumoa nekazaritza jarduera bezala ordaintzeko, eskaera urtero berritu behar da. Martxoaren amaiera baino lehen egin behar da eskaera hori. Beraz, baserriarrak, adi egon.

Horregatik, nahi izanez gero, baserriarrok zuen eskaera berriro egin behar duzue udaletxean, ondorengo ziurtagiria gehituz: "Ustiakuntzako Nekazal Lan Unitate (NLU) kopuruaren ziurtagiri eguneratua, Foru Aldundiko Nekazaritza Sailean eskatua. (Zarautzko Eskualdeko Nekazal Bulegoan-OCA).

Eskaera berehala egin behar duzue, uraren kontsumoko prezio murriztua 2003 urteko lehenengo hiru hilabetekeo tartean aplikatu ahal izateko.

ARRAKASTA IZAN DU PLAKA DEIALDIAK

Baserrian plaka jartzeko azken deialdia egin berri du udalak. Buztinzulo elkarteak egiten dituzten zeramikazko plaka hauek eta honakoa, hauek izan dira eskaera egin duten baserriak: Ibarrola Haundi, Troia, Aintzia Aintzia Zahar, Lertxundi, Arratzain, Tellegindegi, Mapillerreka, Aldatxa, Larbain, Etxeberri Txiki, Karaetxea, Errementaldegi eta Fermindegi, besteak beste.

JENDAUURREAN DA INGURABIDE BERRIKO TRAZATU PROIEKTUA

Duela bi aste iritsi zen udaletxera Donostiako bigarren ingurabidea edo zinturoiaren trazatu proiektua. Autobidearen adar berri honek guztira 16,7 kilometro izango ditu eta Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia, Hernani, Astigarraga, Errenteria eta Oiartzundik pasako da. Proiektua eta ingurumenaren eraginari buruzko azterlana jendaurrean da egunotan.

Aurrera doaz arau subsidiario berriak

Pasa den astean egin udalbatza bilkuran hasierako onespenera eman zitzaion arau subsidiarioen berrazterketarako proiektuari.

Arau subsidiario berriek Usurbilgo Sozialista Abertzaleak taldeko kideen onspena jaso zuten. EAJ/PNV eta EA

alderdiak aurka agertu ziren. PSE-EEko zinegotzia ez zen plenoan azaldu.

Arauak hilabeteke epean izango dira jendaurrean. EAK epea hori bi hilabetezabaltzea eskatu zuen baina proposamen hau ez zen onartua izan. Epe hori amaitzean, behin behineko onarpena eman nahi zaio proiektuari.

Alejandro Tapiaren azken uzta, Zarauzko Sanz Enean

Alejandro Tapiasasoi betean da. Zarauzko Sanz Enean aretoan bildu ditu azken urteotan egindako margoak eta eskulturak. Ilusioz azaldu digu erakusketa honetan bildu duena.

Azken urteotako lanaren emaitza al da Sanz Eneako erakusketa?

Badira garai honetako beste koadro batzuk. Baina honek markatzen du azken sei urteotako lana. Lehendik zetorren bidearen jarraipena da. Oso gatzetik panoramika batetik hasi nintzen eta gero hurbiltzen joan naiz. Gutxinaka paisaje horretara hurbiltzen hasi eta baso batean sartu nintzen. Bolada batean zuhaitzak, zerua margotzen aritu nintzen, pixkanaka gerturatzzen hasi eta abstrakziora jo nuen. Sei urte egin nituen honela eta ostera paisajeekin hasi naiz berri.

Eskulturak ere badira. Nola definitzen duzu zure burua?

Ni pinturan ez banintz hasi, eskulturari arituko nintzateke, eta berdin egingo nuen. Eskultura beti egin dut, baina gutxi. Pinturak bereganatu egin ninduen eta eskultura bigarren maila batean geratu zen.

Une jakin batean, 30 urterekin edo, margolari izatea erabaki zenue-la irakurri dut prentsan.

Prentsan esan diren gauza batzuk ez dira horrela. Nik umetatik oso ondo nekiela artista izango nintzela eta horrelakoak. Umetan artista izatea zer zen ez nekien. Ni baserrikoa naiz, ez zen informaziorik. Barrundik ateratzen zitzaidalako pintatzen nuen. 17 urterekin hasi nintzen lanean, Donostian dekorazio munduan, imajinerian... Goizean 8:00etarako joaten nintzen eta gauean bueltatzen nintzen. Ez nuen ezertarako denborarik. Nik

beste aspirazio batzuk nituen. 30 urte nituela, eguberrietako lehiaketa bat irabazi nuen Donostian eta aitzakia horrekin lana utzi nuen.

Eta ez zinen damutu. Dena den, ez da apustu erraza.

Ez da erraza. Urte onak izan dira. Baina gorabeherak izaten dira. Gustuko duzun lanean ari zaren aldetik, pribilegiatua zara. Nire etxean oso ondo ulertu zuten eta hori oso garrantzitsua izan zen.

Aginagan izan zara beti, estudioa ere Aginagan duzu. Hor duzu inspirazio iturri handi bat, ezta?

Paisajeak eragin handia izan du eta tokiak berak ere bai. Donostian biziko banintz ez dakit nondik joko nuen. Ez dut hori bakarrik egin. Denbora batean, baserri barrurako margoak egiten aritu nintzen.

Enkargu horiek zailak egiten al zaizkizu?

Beti jartzen dizu muga bat. Niri, niretzat pintatzea gustatzen zait. Eta enkarguetan beste batentzat margotu behar duzu, eta hor zeozer sortzen da. Neronentzat margotzea dut gustukoen.

Carlos Zabala Askatasuna Plazan egiten ari dena ikusiko zenuen. Zer iruditu zaizu?

Gustatzen zait. Asko jantzi du, plaza bera hain da zatarra. Zaila da kutsu hori aldatzea baina Carlosen lanak asko laguntzen dio. Polikromia bat ematen dio, politak dira egin dituen gauzak eta asko jantzi du plaza.

Alejandro Tapiaren margo erakusketa Sanz Enean (Zarautz) da, apirilaren 6a bitartean. Ordutegia: 18:00-20:00. Jai egunetan: 12:00/14:00-18:00-20:00.



ESKULTURAK ERE TOPATUKO DITUZUE SANZ ENEAKO ERAKUSKETAN.

Eta Zumetaren lanak, Bilboko galeria batean

Usurbilgo margolariak albistearen harian ditugu azken egunotan. Alejandro Tapiaren pinturak eta eskulturak ikusgai ditugu Sanz Enean, Zarautzen. Carlos Zabalak Askatasuna Plaza itxuraberritzen dihardu, gehiengoaren oneritziarekin gainera. Jose Luis Zumetaren lanak, aldiz, Bilbon ditugu ikusgai, Epelde&Mardaras galerian. Artezaleek, beraz, badute nora jo.

Apirilaren amaiera bitartean, Bilbon ikusi ahal izango ditugu Joxe Luis Zumetaren margoak. Hamabi olio eta serigrafia bat bildu ditu Epelde&Mardaras galerian. Azken hilabeteetan (New Yorkera joan aurretik) eginiko lanak dira hauek.

Xomorro aginagatar presoak berriz erroldatuko da Usurbilen

Xabier Aranburu *Xomorro* euskal preso aginagatarra-
ren senitartekoen bitartez
jaso genuen albistea. Xomorrori
ofizioz eta bere borondatearen kon-
tra, ezjakinean, Usurbilen baja
eman eta Manzanaresko herrian
erroldatu zutena, Herrera de la
Manchako preso guztiak bezalaxe.

Udal iturriek eta Etxerat! elkarteko
kideengana jo dugu eta euren esane-
tan prozedura ezlegezkoa izan da.
Interesatuak ez du notifikaziorik jaso.
Dena den, *Xomorro*ren kasuan behin-
tzat, erreklamazioa egin da eta berri-
z Usurbilgo erroldan alta emateko lanak
martxan dira. Xabier Aranburuk,
Xomorrok berak, eskaera bat egin du



XABIER ARANBURU OFIZIOZ ETA BERE
BORONDATEAREN AURKA ERROLDATU
ZUTEN MANZANARESEN.

bere desadostasuna bi udalei jakinara-
ziz.

Giza Eskubideen Defentsarako
Udal Batzordeak gertaera hau salatu
zuen pasa den astean eginiko bilku-
ran.

PARISERA ERAMAN DUTE DOMINGO AIZPURUA

Martxoaren 21ean
Frantziako poli-
ziak Domingo Aizpurua *Pitxas*
usurbildarra atxilotu zuen
Maule inguruan.

Atxilotu zuten unean baka-
rrik zihoan eta, antza denez,
soinean nortasun agiri faltuak
eta arma bat zeramatzan.
1994an Frantziak Espainiara
entregatu zuen Domingo
Aizpurua. 12 egun inkomuni-
katuta egin ostean, tratu txar-
rak salatu zituen.

Bestetik, Patxi Seguiolak
Fratziako Fleury espetxean
jarraitzen du. Mitard-etik atera
dira baina ez dute eskatzen
zituzten eskubide bat bera ere
lortu.

Jarraipen zabala izan zuen Egunkariaren aldeko Elkartasun Egunak

Egunkariaren aldeko Elkartasun
Eguna arrakastatsua izan zela
esan daiteke. Sindikatuek
ordubeteko lanuztea egitera deitu
zuten eta erantzuna erabatekoa izan
zen irakaskuntzan, komertzioetan eta
Udaletxean. Enpresetan ere jarraipen
zabala izan zuen martxoaren 13ko
lanuzteak. Besteak beste, Luzuriaga,
Igepak, Cortes Tailerrak, Uzin,
Michelin, Savasa edota Larrañagan
jarraipen handia izan zuen ordubeteko

lanuzteak. Lanuztearen orduan langile-
ak enpresa atarian bildu ziren.
Horietako asko udaletxe aurrean bildu
ziren eguerdiko 12:00etan. Iluntzeko
elkarretaratzea ere jendetsua izan zen.

Usurbilgo Udaleko Langileen
Asanbladak lanuztearekin bat egin
zuen. Gainera, langile bakoitzaren
hileko soldatari dagokion beste ordu-
beteren diru kopurua Euskaldunon
Egunkaria-ko langileei ematea erabaki
zuten.



MARTXOAREN 13KO EGUERDIAN ITXURA
HAU ZUEN UDALETXE ATARIAN.

MIKEL
IZ GI E

ELEKT ZAT TE

0 1 2 3 4 5 6 7

8 9

el 11 - 11 11

MAHUKA

E H E E N K

on et em hune koen mod ko op
u l heneu u b tuko du u

Tlx st k l , 3-46. 33 11

PATRI

JATETXEA

- Igurriko menuak
- Plater konbinatuak
Ogiturteak

Tel: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

Goizean goiz iritsiko da Korrika

Erabakia ez da erraza. Zuzenean atera ala lotara joan eta 6:00ak aldera jeiki? Gazte eta hain gazte ez diren askoren zalantza duzue hauxe. Goizeko 6:30ak aldera iritsiko baita Korrika 13 gure artera. Txikiertatik iritsiko da eta Mapilleko bihurgunean jasoko dute oriotarrek lekukoa.

Kilometro bat erosten duenak Korrikaren lekukoa eramateko aukera izaten du. Jada salgai daude kilometroak, 300 eurotan hain zuzen. Hauek dira jada kilometro bat eskuratu dutenak: Udala, Noaua! Kultur Elkartea, Aginagako Jai Batzordea, Zubietako Herri Batzarra, Andatza KKE, Akerra Gaztetxea, Aitzaga elkarte, Berriola, Etxerat...

Kilometroren bat eskuratu nahi baduzue, deitu lasai Etumeta euskaltegira: 943 37 20 01.

LASARTETIK BARRENA

Lasarte-Oriatik Zubietara joko du Lasterketak. Araetan egongo da Usurbili dagokioen lehen kilometroa. Hau da ondoren osatuko duen ibilbidea: 2. km, Txikiertin, Babilonia baserri parean. Urbilen buelta bat eta N-634 errepidera ateratzean, 3 km. Laugarrena, Plásticos Larrañagan. 5 km, herri sarreran. Errotondatik Kalezarrera igo eta ondoren Usurbilera jeitsi, Bordatxo pareko errotondan izango da 6garrena. Hortik, udaletxera eta handik Ingemar aldera. Parking-ean izango da 7. km. Santuenera igaroko da lasterketa eta erriberatik barrena Txokoaldera. 8. km Ziñarrean izango da. Erribera bidean, 9. km. Berriola Lantegian, 10 km. Berriz N-634 errepidera atera eta Aginagatik barrena Mapilleko bihurgunetara. Hor hartuko du Oriok Korrika 13 lasterketaren lekukoa.



KORRIKA TXIKI APIRILAREN 4AN, ARRATSALDEZ, IGAROKO DA HERRITIK.

Ekitaldi ugari Korrikaren bueltan

Martxoak 29, larunbata

Susana Martinen ikasleen pintura erakusketa, Paris Berrin.

Apirilak 1, asteartea

Ipuin Kontaketa Txiribogan, 22:00etatik aurrera. Ipuin musikalak Patxi Hernandoren eskutik.

Apirilak 3, osteguna

Irani buruzko diaporama Txirristan, Ainhua Azpiroz eta Asier Ubegunen eskutik. 20:00etan.

Apirilak 4, ostirala

15:00etan hasiko da Korrika Txiki. 16:30etan amaituko da Frontoian.

22:30etan mus txapelketa Txiribogan. Izen-ematea, ordubete lehenago. Sariak

lehen hiru bikoteentzat.

Apirilak 5, larunbata

Joku tailerrak frontoian. Goizez.

Apirilak 6, igandea

Goizeko 6:30ak aldera iritsiko da Korrika 13 Txikiertin. Honen ostean, frontoian txokolate-jana bizkotxoekin. Ondoren, pilotariak frontoian.

11:00etatik aurrera zarpantzarrek herrian.

14:00etan herri bazkaria Agerialden. Marmitakoa eta arkumea (txilindron erara), tarta eta kafea. Xabi Telloren sukaldaritza ikasleen eskutik. Prezioa, 10 euro, txartelak salgai apirilaren 4a bitartean Aitzagan, Txiribogan, Bentan eta Txirristan. Ondoren, herriko bertsolarien saioa.



TXIRIBOGA
taberna

pintxoak, bokatak eta
plater konbinatuak

Telf: 943 36 13 98

al s p s t e r a



Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Joan Mari Torrealdai: “Eskerrak eman nahi dizkiot Usurbilgo herriari”

Konpondu badute ere, oraindik agerikoak dira atxiloteta eguneko kolpeak Torregorri etxearen atean. Eraman eta hilabetera hartu gintuen bere etxean Joan Mari Torrealdaik. Minduta baina aurrera segitzeko adorez topatu genuen.

Bermea ezarrita irten zinen espetxetik. Zein egoeretan zaude une honetan?

Astero epaitegitik pasa behar dut, Estatutik ateratzerik ez daukat. Hirugarrenik, etxe baten helbidea, non egongo naizen zehaztu behar dut. Hendaiara eta Baionara joaterik ez daukat. Eta asko joan izan naiz, bilerak direla baina orain ez daukat joaterik.

Txema Auzmendi lanera buelta-tzeko gogoz sumatu nuen. Zuk ere lehen baino lehen lanean jartzeko asmoarekin irten zinen espetxetik.

Txemarekin bi egunez izan nintzen espetxeko “ingresos” delakoan. Ni baino beteagoa, osoagoa ikusi dut Txema barrutik. Fisikoki ondo nago baina psikologikoki ahulago nago. Agian inkomunikazioan gehiago sufritu nuelako. Sufrimendu hori hiru tokitan jartzen dut: lehenik, etxean sartu zirenekoa. Ez dut sekula ahaztuko, izugarria izan baitzen. Zorionez, bueltakoan ikusi dut haurrek ez dutela hori guztia gorrotoz bizi. Inguruneak, familiarreak, ikastolak asko lagundu die. Niretzat hori oso inportantea da. Gorroto gabe bizitzea.

Bigarrenik, nire bizitza profesionalan egin didaten txikizioa. Agenda guztiak eramane dizkidate, nire memoria historikoa... Ni memoriaz berez ez naiz oso fuertea eta dena idatzita uzten nuen eta hori dena eramane dute. Artxibo pertsonalak gehi artxibo profesionalak. Eta hori

oso gogorra da niretzat. Hirugarrenik, han izan genuen tratu, humilagarria. Ni barrutik afektatuta nago. Baina horri aurre egin behar zaio eta nik eskatzen dudana gauza bakarra da utz nazatela bakean. Ni bakean uzten banaute hau niretzat anekdota bat izango da. Baina han sentitzen duzun beldurren ostean, edozer gauza dela posible, hori ikusita lurra falta zait. Alde horretatik, ez nago behar nukeen adina sendo, baina aurrera segitu behar dela erabakita nago eta nire lan profesionalan jarraitu behar dudala. Jakinen segitu behar dut, ikerketan jarraitu behar dut. Eta egunkari proiektu berrian ere, bat gehiago bezala egoteko asmoz.

Egun hauetan guztietan, seme-alaben izuz beteriko begiradak kolpatu zaitu behin eta berriz. Orain haien irrifarra ikusteak indarra emango dizu, ezta?

Izugarria, izugarria! Imajinatu ere ezin nezakeena. Negargurea ateratzen zait pentsatzen dudana bakoitzean. Etxeko lagunekin hasita, ikastolan, herrian bertan, kontatu dizkidaten anekdotak.. ezin dut sinistu ere egin. Nik sekula ez nuke pentsatuko horrelako zerbait gerta zekidakeenik, baina gertatuta, ez nuen uste erantzuna hori izango zenik. Oraintxe ere negargurea ateratzen zait. Malko goxoak dira, esker onekoak.

Eraman duten paper, agenda eta dokumentazio guztia berreskuratzeko itxaropenik ba al duzu?

Oraingoz ez. Sekretupean dago dena. Nire ordenagailu pertsonala ere han dago. Batzuk diote baietz, itzultzen dutela, beste batzuk ezetz.

Zaila izango da lanean hastea dokumentaziorik edo artxiborik gabe.



PASATAKOAK PASA ONDOREN, GUSTURA JASO ZUEN ETXKOEN BEROTASUNA.

Oso zaila da. Kasu batzuetan ezinezkoa. Nire memoria historikoa hondatu dute eta etorkizuna ere neurri batean baldintzatu didate.

Zuek atxilotu eta berehala epe-lak esan ziren zuengatik. Medioetan, titular asko bereganatu zenituzten baina, orain, kalera irten zaretenean, inork gutxi erreparatu du zuen kaleratzean. Zuen ohorearen aurkako kolpe gogorra da hori.

Oso gogorra, niretzat oso gogorra. Beti saiatu naiz kultura eta euskara ez den beste ezerrekin nahastuta ez egoten. Hor bada saio konsziente bat, estrategiko bat. Pertsonalki eta profesionalki. Horrelako batean uholde honek harrapatzen zaitu eta Bin Laden baino okerrago zaude. Ez dakit zer gertatuko den gero epaiketate batean baina gu jada kondenatuta gaude. Zure jendeak sinesten dizu baina profesionalki eta beste lan batzuk kanporako egin behar direnean gure izenak ez du ohorerik. Plaza publikoan kriminalizatu egin gaituzte, kondenatu egin gaituzte eta ikusi

behar zein ondorio dituen Jakinentzat. Hemen Egunkaria bakarrik ez dago joa. Jakin, Argia ere ikututa daude. Hori mingarria da.

Kalera irten eta Egunero ikusi duzu kioskoan. Ahalegin hori ere nabarmentzekoa da, erreakzio hori.

Sekulako sorpresa izan zen. Han barruan sartzen zarenean mundua bukatu dela uste duzu. Epailaren aurrean ikusi genuen Egunero. Nik Tolosaldeko Egunero zela pentsatu nuen. Badago indar bat, ahalegin bat. Erreakzio hori oso inportantea da, eta sekulako arnasa guretzat. Ahalmen horrengatik eta edukietan topatu genuen atxikimendu, berotasun horrengatik.

Euskaldunak topatu zenituen Soto del Realen Soto del Realen?

Modulu guztietan euskaldunak daude. Niri zortzigarren modulua tokatu zitzaidan. Fama txarrena zuena. Han lau euskaldun zeuden eta a ze laguntza eskaini zidaten! Babesa, izugarria. Irratia, telebista

utzi zidaten. Erabat galduta zaude han, eta benetako berotasuna eskaini zidaten. Han amestu egiten genuen, "ateratzen garenean egingo dugu afari bat etxean" esaten nien.

Euskal kulturari jo dio zuzenean Egunkariaren aurkako operazioak eta une honetan jende asko dago sintonian. Indargune hori ondo kudeatzea garrantzitsua litzateke, ezta?

Zaila bezain inportantea. Ea beroaldi hauek hozten direnean zer gertatzen den. Ikusten denez, olatu gehiago ere badatoz. Burua hotz eduki behar da eta gauzak ondo neurtu behar dira eta zentzu horretan egin behar da bidea. Badakit badabiltzala lan horretan. Harremanak, proposamenak badira. Bat gehiago bezala sartzeko prest nago, baina pixkanaka. Nire printzipio nagusia da daukaguna ez dugula galdu behar. Daukagunari erantsi behar zaio. Hasten bagara haizea orrazten, ez dakit zein proiektorekin eta abar, 1990ean eman zen zatiketaren beldur naiz. Eta hori da alde

guztietatik sailhestu behar duguna.

Nik esperantza badut eta jaso dugun erantzun honi zor diogu.

Usurbilen ekimen ugari egin da azken asteotan, beste herri batzuetan bezalaxe. Jende asko izan da bilkura eta ekitaldi ezberdinetan. Ongietorria ere hunkigarria izan zen, ezta?

Usurbilgo herriari benetan eskerak eman nahi dizkiot. Bihotz bihotzetik eskerrak eman, eta sentimendu handiz diot ikusi dudana ez nuen sekula espero. Ez da nik ereindakoa. Hori baino gehiago da. Ni beti saiatu naiz jator jokatzeko baina jaso dudana hori guztia gainditzen du. Harreran kolore guztietako jendea ikusi nuen, benetako berotasunarekin. Huts bat egin nuen. Eman zidaten lore sorta hori banan bana hartu eta haurren artean banatu ez izana. Ez nuen erreflejurik izan, baina nentorren lekutik etorrira, ez da harritzekoa, ezta? Pozik zeudela ikusten zen, horiek ez dute engainatzen. Gero Ikastolan izan nintzen, eta harrera izugarria izan zen.

Adostasunaren premia nabarmendu zuen Pello Zubiriak

Xumea bezain hunkigarria izan zen Pello Zubiria aginagatarak jaso zuen omenaldia. Bertsolariek, dantzariak eta txistu doinuak alaitu zuten ongiatorria.

Argiako lehendakari den Jose Mari Irazusta usurbildarra izan zen ekitaldiko aurkezlea. Beste aurpegi bat zuen, pozez zegoen bera eta Argiako gainerako lagunak. 30 egun hauetan itzal asko eta argi gutxi izan baita Argia-ren inguruan. Martxelo Otamendi izan zen ongiatorri ekitaldian hitza hartu zuen lehena. Egunkaria itxi badute ere, euskal prentsak aurrera egingo duela ziurtatu zuen eta Pello Zubiriaren kemena beharrezkoa izango dela adierazi zuen segidan.

Ondoren Xabier Letona aldizkariako zuzendariaren eskutik, agenda eta luma jaso zituen Pellok.

Dantzarien saioa amaitzean iritsi zen Pelloren txanda. Lehenik eta behin eskerrak eman zizkien atxiloturik egon den denboran berari eta etxekoei lagundu dieten guztiei. Egunkaria itxi duen operazioa gezur handi batean oinarrituta dagoela esanez jarraitu zuen. Eta aurrera begira kezkati agertu zen: "zerbait handiagoaren atarian gaude. Ez dakit zer, baina argi dago zerbait handia lehertu nahi dutela, ez dakit Eusko Jaurlaritzaren den, Euskal Herria den edo zer, baina zerbait badator". Honi aurre egiteko adostasun batera iritsi beharko dugula uste du Pellok: "abertzaleok eta Euskal Herria maite dugun guztiok adostasun batera heldu behar dugu; bestela, jango gaituzte".

Kartzelan eta Soto del Realen bizitakoa azaldu zuen lagun eta senideen aurrean. Espetxea ezagutu du eta bere hitzei erreparatu, egoera gogorrean



PELLO HIZKETAN ETA BERE ATZEAN, JOXE MARI IRAZUSTA, EMAZTEA ETA SEME-ALABAK.

daude espetxeratuak. Barruan jarraitzen duten hiru lagunak ez zituen ahaztu baina Xabier Alegria, Xabier Oleaga eta Iñaki Uria aipatzeaz gain, gainontzeko euskal presoek bizi duten egoera ere aipatu zuen Argiako atarian egin zitzaien ongi-etorrian: "Ekarri egin behar ditugu, ezin ditugu usteltzen utzi".

Udaleku irekiak antolatuko ditu Noaúa! Kultur Elkarteak uztailan

Noaúa! Kultur Elkarteak aurten arlo berri bati ekin dio: aisialdia, haur eta gazteen arloa. Sail honetatik bideratuko dugun lehen egitasmoa eta estreineko udaleku irekiak antolatzea izango da. Bide batez, begiraleen lan poltsa ere osatuko dugu.

8-11 urteko haur-gaztetxoak udako kanpaldietara joateko aukera izango dute. Euskal Herriko euskara elkarte desberdinen artean koordinatzen dira udaleku hauek eta Usurbilgo haurrak beste herrietako haurrekin nahastuko dira.

* LEKUA: Lizarran

* DATAK: Uztailaren 1etik 14ra.

* NORI ZUZENDUA: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak

(8-9 urte) eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak (10-11 urte).

* MATRIKULA: 200 euro izango da, hala ere, izena ematen duten haur kopuruaren arabera gutxitu daiteke. Apirilaren 14tik maiatzaren 31ra izango da matrikula egiteko aukera Noaúa!ko egoitzan. Informazio gehiago bertan eskuratuko duzue. Matrikula bi zatitan ordain daiteke; ekaina hasieran eta ekaina bukaeran. Plaza-kopurua mugatua da. Beraz, matrikula gehiegi izanez gero, matrikulazio ordena hartuko da kontuan.

Beraz, ez galdu aukera eta matrikulatu zure seme-alaba.

BEGIRALEEN LAN-POLTSA

Aisialdiaren Saitetik Noaúa!k egitasmo ezberdinak bultzatuko ditu: Udalarekin batera esku artean dugun

Euskal Txokoak, udalekuak eta abar. Egitasmo hauetan guztietan begiraleak behar ditugunez, begiraleen lan poltsa osatu nahi dugu. Horregatik, begirale titulua duten herritarrak beren curriculumak bidaltzera animatu nahi genituzke, hemendik aurrera lanpostuak sortuko baititugu. Hona epe laburrera aurreikusitako ditugun lanak:

- Neguko Euskal Txokoak. Orain dauden begiraleen batek lana utziko balu edo bajaren bat egongo balitz. Irailetik ekaina bitarte, astean 9 ordu.

- Udako Euskal Txokoak: ekainaren 23tik uztailaren 31a arte, goizez.

- Udako kanpaldiak, uztaila lehen hamabostaldia.

Hauetako batean lana egin nahi baduzu, bidali zure curriculum.

Zumartek eta Lezoko Musika Eskolak jaialdi berezia eskainiko dute Udarregi Ikastolan

Urtero bezala, Zumarte Usurbilgo Musika Eskolak trukaketako kontzertua antolatu du. Aurten Lezoko Tomas Garbizu Udak musika eskolarekin bilduko dira: apirilaren 2an, arratsaldeko 19:30etan, Udarregiko Ikastolako areto nagusian. Emanaldi honetan, Zumarteko abesbatza eta talde instrumental txikiak eta Lezoko musika banda eta akordeoi taldeak entzuteko aukera izango dugu. Egitaraua, hauxe:

Zumarte Abesbatza

Hymn to freedom (Oscar Peterson)
Ama begira zazu (Arm: Luis Elizalde)
Any dream will do (Andrew Lloyd Webber).

Zuzendaria: Miren Etxebeste.

Zu gabe (Ashgard) eta Laztana (Lätzen)

Flautak: Ainara Zumeta, Garazi Torrealdei, Elixabet Eizagirre.
Kitarrak: Maddi Galbete, Oihana de la Mata.

Intxaurjalea (Tchaikovsky)

Pianoa: Ane Gurrutxaga, Izadi Azkonobiera.

Key jazz Rhythms (Etude 7.) (Fred Lipsius)

Saxofoia: Alazne Begiristain.

Easy beat (B.Haske)

Saxofoiak: Jon Etxabe, Jon Galbete.

Mendizaleak (Herrikoia)

Txistuak: Imanol Arrojeria, Garazi Lizaso, Maddalen Cardenas.



K m

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



JOSETXO IKATZETA



Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Areto futbol txapelketa berri bat hasiko da apirila amaieran

Txapelketa berri batek dantzan jarriko ditu herriko futbolzaleak. Apirilaren amaieran hasi eta Santixabeletan amaituko da eta edonork har dezake parte. Izena emateko epea apirilaren 4an amaituko da. Josu Aranberrik eman dizkigu ekimen honen xehetasunak.

Txapelketa antolatzearen ideia nondik dator?

Idea ez da aurtengoa. Lehen areto futboleko Antxeta taldeak antolatzen zuen seniorren txapelketa eta Usurbil Futbol Taldeak zazpiko futbola edo areto futbola umeentzat. Berriz ere honelako zerbait antolatzea posible izango litzatekeela pentsatu genuen iaz, baina Gazte Asanbladak ere txapelketa egin behar zenez eta denbora faltagatik, atzera egin genuen. Aurten, berriz ere ideia horri heldu eta gurtia martxan jartzea erabaki dugu.

Herrian "saltsa" sortu nahi al duzue?

Gure ustez herrian saltsa gehiago sortuko luke azken hiru urteetan antolatu den frontoiko txapelketak. Hala ere, seniorrek



frontoian jokatzeari arriskutsua izan daitekeela eta kiroldegira jo dugu. Bestalde, epaile federatu eta abarrekin seriotasun bat eman nahi diogu txapelketa honi eta beste herrietako taldeei ere ateak ireki nahi dizkiegu. Kadete eta infantilek frontoian saltsa hori sortuko dutela uste dugu. Hori bai, txapelketa hau antolatuz Usurbil Futbol Taldeak bizirik dirauela aditzera eman nahi dugu.

Urtero errepikatzeko asmoarekin jaio al da txapelketa hau?

Aurten jendearen erantzuna nolakoa den ikusi nahi dugu. Dena ondo irtetzen bada datorren urtean ere txapelketa antolatzen jarraitzeko prest egongo ginatke.

IZEN-EMATEA, APIRILAREN 4A BAINO LEHEN

Izena emateko: Oiaro kiroldegian, apirilaren 4a baino lehen. Talde bakoitzean gehienez, 10 jokalaria.

Prezioa: seniorrak (1987. urtetik beherakoak), 120 euro. Neskak, 50 euro. Kadeteak (1988-89-90), 50 euro. Infantilak (1991. urtetik aurrera), 30.

Eraman beharrekoak: taldearen izena, NAN edo familia liburuaren fotokopia, dirua, telefonoa edo e-posta.

Delegatuen bilera: Apirilaren 12an Oiaro kiroldegian. 16:30etan, infantilak eta kadeteak. 17:00etan, senior eta neskak.

IGANDE HONETAN, HERRIKO PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK

Martxoaren 30ean, 10:30etan hasi-ta giroa pil-pilean izango da herriko frontoian. Hauexek dituzte finalatan artuiko diren pilotariak: 9 urteko kategorian, Iñaki Irazusta- Iñaki Uli. 10 urtekoena, Julen Berradre-Xabier Peñagarikano. 11 urtekoan, Ugaitz Agirre-Jon Aizpuru. 12 urtekoan, Julen Dorronsoro-Unai Imaz. 13 urtekoan, Unai Olaizola-Xabi Sancho. 14 urtekoan, Eñaut Esnaola-Jon Alzaga. 15 urtekoan, Iñigo Irastorza-Iker Zinkunegi.

SASKIBALDIKO ENTRENATZAILE IZATEKO IKASTAROA

Buruntzaldeako udalek saskibaloiko entrenatzaileak direnentzat eta izan nahi dutenentzat ikastaroa antolatu dute Lasarte-Orian. Hilabeteko ikastaroa izango da eta apirilean egingo da. Prezioa, 115 euro, eta izena eman nahi duenak kiroldegira jo dezake (943 37 24 98).

JUDO TALDEA, GIPUZKOAKO ONENA

Gipuzkoako Judo Txapelketan Usurbilgo taldea izan da onena. Gure kirolariek 36 domina eskuratu dituzte: urrezko 19, zilarrezko 9 eta brontzezko 8. Euskadi eta Espainiako junior zein senior txapelketetan ere lan ona osatu dute. Hernanin egin berri den alebin txapelketan bikain aritu dira judo taldekoak. Gipuzkoako Taldeen arteko txapelketan, aldiz, Udarregiko A taldeak lehen postuan amaitu zuen eta B taldeak, hirugarren. Zorionak denei!

Hurrengo saioak

FUTBOLA

Martxoak 30

Kadeteen 2. maila: Lengokoak- Usurbil FT.
Emakumezkoen Kopa: Usurbil FT- Groseko KE.
2. Erregionala Kopa: Danena KE- Usurbil FT.



Apirilak 6

Kadeteen 2. maila igoera: Usurbil FT- Ordizia.
Emakumezkoen Kopa: Vasconia CD- Usurbil FT.
2. Erregionala Kopa: Usurbil FT- Arrobi Berri CD.

ARETO-FUTBOLA

Martxoak 29

Infantil neskak: Udarregi, atsedeen.
Infantil mutilak: Belen - Udarregi.

Apirilak 5

Infantil neskak: Salesiarrak- Udarregi.
Infantil mutilak: Udarregi - Santa Teresa B.

Txakur saltzai -

Behin batean txakur saltzaile bat bizi zen. Bost txakur zituen eta horietako bat herrena zen eta aparatu bat zeraman hantetan; hura izan zen lehenengo saldu zuena.

Saldu zuen egunean mutiko bat joan zitzaion erosteko asmotan eta saltzaileak aipatu zion hantkan zuen mina. Orduan mutilak bere galtza jaso zuen, berak ere zuen aparatua erakutsiz eta esanez:


- Nik ondo uler dezaket bere egoera eta biok elkarrekin ondo konponduko gara.

Egun hartatik aurrera oso lagunak egin ziren.



Kaixo lagunok!

Txakur bila gabiltza. Marrazki honetan txakur bat



OLERKIA

Lagun izatea zer den

Bizitza honetan
gauzarik onena
maite gaituzten lagunak
edukitzea da.

Benetako laguna da
beste guztiek
alde egin dutenean,
geure ondoan geratzen dena.

Barruan daude izenak. Bilatu!



Urtinea

L r k - L r l n r k

L r s r l k - K r k

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

L T ILL E

**ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K**

IZTITX K L F .
EHF

(3) 3 2 35-3 33
M 1 21

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	20.33*	20.50*	20.38*	20.54*	21.09*
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

* Astegunetan bakarrik

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05		12.30
13.00	13.25	13.35	13.55 #	11.45	12.05	12.15	12.40
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05		13.30
14.00	14.20	14.30**		12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.25	14.35	14.55		13.30	13.35	13.55*
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05		14.30
15.00	15.20	15.30		13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.25	15.35	15.55		14.30	14.35	15.00
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05		15.30
16.00	16.25	16.35	16.55	14.45	15.05	15.15	15.40
16.40		17.05	17.25		15.30	15.35	15.55*
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05		16.30
17.40		18.05	18.25	15.45	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.30			16.30	16.35	17.00
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05		17.30
18.40		19.05	19.25	16.45	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05		18.30
19.00	19.25	19.35	19.55	17.45	18.05	18.15	18.40
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05		19.30
20.00	20.20	20.30		18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.25	20.35	20.55#		19.30	19.35	20.00
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05		20.30
21.00	21.25	21.35	21.55	19.45	20.05	20.15	20.40
22.15	22.35	22.45	23.05	20.45	21.05	21.15	21.40
22.00	22.25	22.35	22.55	21.15	21.35	21.40	22.00
22.30	22.55	23.05	23.25	21.45	22.05	22.15	22.40
00.00		00.25	00.45	23.15	23.35		00.00
02.00		02.25	02.45	01.15	01.35		02.00
04.00		04.25	04.45	03.15	03.35		04.00
06.00		06.25	06.45	05.15	05.35		06.00

**Aiarraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

*Aiatik dator ■ Astegunetan
 ■ Soilik ■ Larunbat
 larunbata gauze lanegunetan

Goardiako farmaziak

Martxoak 28, ostirala

E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte.

G: Gomez, Kale Nagusia 14, Hernani.

Martxoak 29, larunbata

E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte / OA,

Poligono 1, Usurbil.

G: Bulnes Exteberri, B Florida Hernani

Martxoak 30, igandea

E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte.

G: Bulnes Exteberri, B Florida Hernani

Martxoak 31, astelehena

E/G: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte.

G: Chucla, Kardaberaz, 48 Hernani

Apirilak 1, asteartea

E: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte.

G: Correa, Perkaiztegi, 8, Hernani.

Apirilak 2, asteazkena

E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte.

G: Aizpuru Latxunbe Berri, 11 Hernani

Apirilak 3, osteguna

E: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.

G: Extebeste, Elkano 2 Hernani.

Apirilak 4, ostirala

E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte.

G: Zatarain Arteta kalea, z/g Andoain.

Apirilak 5, larunbata

E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte.

G: Gomez, Kale Nagusia 14, Hernani.

Apirilak 6, igandea

E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte.

G: Gomez, Kale Nagusia 14, Hernani.

Apirilak 7, astelehena

E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte.

G: Diaz, Kale Nagusia 19, Andoain.

Apirilak 8, asteartea

E/G: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte.

G: Elizondo, Zumea 20, Andoain.

Apirilak 9, asteazkena

E: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte

G: Gorospe, Rikardo Arregi, 12 Andoain.

Apirilak 10, osteguna

E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte.

G: Bulnes, Grupo Exteberri 1, Hernani

Apirilak 11, ostirala

E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte.

G: Ansa, Ondarreta, 8 Andoain.

E: eguneez. G: gauzez (21:00etatik 09:00etara).

E/G: Egunez eta gauzez

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)

7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)

11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Apirila

As.	Ar.	Os.	Ost.	La.	Ig.
	1	2	3	4	5
7	8	9	10	11	12
14	15	16	17	18	19
21	22	23	24	25	26
28	29	30			

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epategia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak !

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.
- Konpartitutako pisu baten bila nabil alokatzeko. Deitu 5:30etatik aurrera. 637 193 100.
- Pisu bat saltzen dut. Munalurra 4, 4 A. Telefonoa: 943 37 10 44.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Txaramuton 30 m2-ko garaje itxia. Deitu 666 646 847 zenbakira.
- Galtzaragaina elkarte bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaragainen 200 eta 300 m2-ko bi bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaragainen 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisan. 678 81 52 77.
- Garaje itxiak saltzen ditut, Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro. 15 m, 7.800 euro. 26 m, 9.000 euro. Telefonoa: 656 759 583.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauz. 943 371447 (Belen).
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldean bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gauz edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo

antzeko zerbituetan, Deitu hona: 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol begiraleak behar dira. Telefonoak: 943 361 216/ 943 370 645.
- Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- Tabernari bat behar da Txurrit tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Leku txiki alokatuko nuke. Ahal bada komunarekin. Telefonoa: 943 36 02 13. Yolanda.
- Argazki kamara bat dut salgai: Pentax MZ 50. Objektiboa 1:4-5.6 35 mm-80mm. Instrukzio liburua. Eramateko boltsa. Zozketan saritua. 625 70 51 14 (arrats-gauean).
- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- 8 urteko mutil koxkor baten txamarra galdu da, Reebok markakoa. Inork aurkitzen badu deitu, 943 36 06 43 telefonora.
- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.
- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.
- Kotxe bat salgai, SS-AP. Elbarrituentzat egokitua. Garajea zainduta. 943 36 43 10 (gauz deitu).
- Aixam autoa salgai (ez du gida-baimenik behar). 943 55 08 47.
- Ford Transit salgai. 5 urte ditu. Prezio onean utziko nuke. 656 759 583.
- Trial bizikleta bat dago salgai. Monty X-DRYA. Interesatuak deitu 943 37 26 46.

Zorionak Maddi!

Martxoaren 23an 4 urte beteko ditu gure sorgintxoak. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Aitona Miguel!

Martxoaren 23an bete zenituen 81 urte. Ondo pasako zenuela-koan gaude. Besarkada haundi bat eta muxu bat etxekoan partez,



eta bereziki, zure hiru biloben partez. Ainhoa, Jon eta Andoni.



Zorionak Osaba

Josean eta zorionak Aritz!

Apirilaren 1ean eta 3an zuen urtebetetzean, etxekoan partez muxu handi bana!

Zorionak Eneko!

Martxoaren 25ean 3 urte bete zenituen. Zorionak etxeko bihurriari.



JAIOTZAK

- **Jon Ander Muñoz Sanchez** 2003-III-10. Usurbil.
- **Iratxe Etxeberria Camino** 2003-III-13. Usurbil.
- **Iker Dominguez Muñiz** 2003-III-18. Usurbil.
- **Maria Martinez Moto** 2003-III-19. Usurbil.

N•I
Il n
MIST
S l r u n , l z ,
r k ! t m n k u r
Zu ur n , 5 - 33 1 51

txirriStra
TABERNA
- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak
Kontseju zaharra, 13
Telf: 943 36 04 66

H ur
ntz k
fauna
K l v x l l 9 3 5 3

Agenda !

APIRILAK 2, asteartea

- Usurbilgo Zumarte Musika Eskola eta Lezoko Tomas Garbizu Udak Musika Eskolaren kontzertua Udarregiko Ikastolako areto nagusian. Arratsaldeko 19:30etan.

APIRILAK 4, ostirala

- Areto Futbol Txapelketan izena emateko azken eguna, Oiardo kiroldegian.

Eraman beharrekoak: taldearen izena, NAN edo familia liburuaren fotokopia, dirua, telefonoa edo e-posta.

Talde bakoitzean gehienez, 10 jokalaria. Prezioa: seniorrak (1987. urtetik beherakoak), 120 euro. Neskak, 50 euro. Kadeteak (1988-89-90), 50 euro. Infantilak (1991. urtetik aurrera), 30.

APIRILAK 11, ostirala

- Egun erdiz publizitateaz arduratuko den pertsona bat kontratatatu nahi dugu Noaua!n.

Curriculum vitae-a ekarri edo bidali honako helbideetara: noaua.k.e@euskalnet.net, noaua@topagunea.com edo Noaua! Kultur Elkartea, bordaberri, 3 - 20170 Usurbil.

Musikaren txokoa !



Tradizioa abiapuntu Iker Goenagaren lan berrienean

Txikitandik hasi zen Iker soinu ikasten eta oraindik ere ikerketan eta bilketan lanean aritzen da.



Tradizio edo musika herrikoia bereganatu eta gaur egungo tonua erantsi dio disko berrian. Elkar argitaletxeko Angel Valdesen ustetan, "musika herrikoia duen ezaugarriak mantentzen ditu Ikerrek, baina garaikidetasuna erantsiz. Bere

kantuek sinpletasuna dute ardatz eta gauzak transmititzen badaki, publikora erraz iristen da".

Abesti guztiak Iker Goenagak eginak dira, bi izan ezik. Diskoaren izen bera daramana herrikoia da, Maurizia Aldeiturriagak abesten zuena. "Salamankara" bezala ezagutzen den kantua bizkaierazko bertsoia. "Hi eta ni" abestiko letraren egilean berriz Jose An Artze da. Gainontzeko guztiak Iker Goenagak eginak dira.

Egin kontu !

Aisialdirako Gidan azaldu nahi?

Buruntzaldea izenaren baitan bil-tzen diren udalak aisialdirako gida moduko bat osatzen ari dira. Liburuxka itxura izango du gida honek eta bertan euskarazko jarduerak eta zerbitzuak bildu nahi dira. 16 urte

beherakoei zuzendua dago gida hau.

Zure talde edo elkarteko informazioa edo eskaintza gida horretan jasoa ikusi nahi baduzu, kultur teknikariaren bulegora jo edo telefonoz deitu: 943 37 19 51.

Kale nagusia, 10
Tel: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olindegia - Gozategia

LABE-GOXO



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

www.noaua.com

Usurbil eta Noaua!,
hemen eta munduan

TXU UT



r t

mus k ts n

S nEst nkl , l
TI 33

ITZ G

HE IK T EN



S u x r o n k i k , l u r
k n n i k , e l y t k u

Euska pr z a k i t s a

Tlf. 33 217



Batzar Orokorrean bazkidetza 6 eurotan igotzea erabaki zen

Martxoaren 8an Noaua! Kultur Elkarteak Batzar Orokorra egin genuen. Bertan 2002an egindakoa aztertu, 2003ko lan-ildoak zehaztu eta 2003ko aurrekontuak onartu ziren.

Zortzi urte bete izanaren pozarekin, bidean asko egina izanaren inpresioarekin, baina egiteke ikusten dugunaren ideia argiarekin hasi du Noaua! Kultur Elkartek 2003. urtea. Aurtengoan badugu proiektu berririk. Izan ere, 2002 urte amaieran arlo berri bati ekin baikenion: Aisia, haur eta gazteen arloa. Arlo honen egitasmo nagusia, Udalarekin batera, Neguko eta Udako Euskal Txokoen kudeaketa izango bada ere, aurtengorako baditugu estreinekoz jorratuko ditugun asmo berriak, tartean, udaleku irekiak.

Gainontzean, 2002an landutako sailekin jarraitzeko asmoa dugu. Egitasmo asko jada erabat egon-

kortuak ditugu (Noaua! hamaboskaria esaterako), beste batzuk egonkortze bidean dira (noaua.com webgunea) eta, azkenik, badira 2003. urtean dedikazio berezia eskainiko zaienik ere, Kultur Elkartea.

180.000 EUROKO AURREKONTUA

Aurtengo aurrekontua 178.664,83 euro izango da. Iaztik hona dexente igo da gure aurrekontua, arrazoiaren artean Euskal Txokoen eta Udal Fototekaren kudeaketa lanen ardura gure esku egotea izan da. Bestalde, pertsonal-goan aldaketak ere egingo dira. Lanak bereiztu nahi dira, horregatik publizitateaz arduratuko den pertsona kontratatuko da.

Gastuak, beraz, gora egin dute. Ondorioz, gstuei aurre egin ahal izateko bazkidetza igotzea erabaki zen, 6 euro alegia. Zortzi urte hauetan ez da igoerarik izan. Horregatik, egoki ikusi zen, aurtun ematea urrats hori. Aurtun udalaren dirulaguntza, 27.047,90 eurokoa izango da.

2003KO EGITASMOAK, SAILEZ SAIL

1. KOMUNIKAZIOA: Lehenetsun nagusia Noaua! aldizkaria hamabostero argitaratzea izango da. Hala ere, lehengo urtean abian jarri genuen webgunea egonkortzea izango da sail honen helburu nagusienetarikoa.

2.- KULTURA: Azken urteetan arrakasta izan duten egitasmoak landuko dira. Ez da berrikuntza gehiegirik izango, baina bai lan egiteko moduari dagokionez, lan-talde bat bideratu baitugu.

3- BAZKIDETZA: Etxez etxeko bazkidetza kanpainarekin amaitzea izango da erronka.

4.- ARGITALPENAK: Usurbilgo baserrien liburu argitaratuko da aurtun.

5.- UDAL FOTOTEKA: Udalarekin batera, elkarrekin kudeatzen duen zerbitzua da. Zeregin nagusia udal artxiboan dauden argazkiak digitalizatzea eta hauen fitxa osatzea da.

6.- AISIA: Sail berria da elkartearentzat. Haur eta gazteei bideratutako egitasmoek osatuko dute programazioa: euskal txokoak, udaleku irekiak eta herriko begiraleen lan poltsa osatzea.

7.- DOKUMENTAZIOA: herrian sortzen diren dokumentu idatziak eta grafikoak artxibatzea.

Egun erdiz publizitate lanak egiteko langilea behar dugu

Noaua! Kultur Elkarteak Batzar Orokorrean onartu bezala, aurtun pertsonalگو mailan aldaketak izango dira elkartearen. Aldaketen artean, egun erdiz publizitateaz arduratuko den pertsona bat kontratatu nahi da.

Hori dela eta, gure elkartearentzat hain oinarritzak eta garrantzitsua den lan hau egiteko pertsona baten bila gabea.

Bila gabiltzan langile honen funtzioak eta profila honako hauek dira:

- FUNTZIOAK:

. Noaua! hamaboskariko publizista izatea

. Publizistaren eginbeharrak: publizitatea lortu, publizitate moduloak diseinatu eta fakturazioa egin.

. Aldizkariaren gain, bestelako argitalpenetarako eta webgunerako publizitatea bilatzea.

- PROFILA:

. Publizitatean lizentziatua edo publizitatearekin lotura duen lizentziaturaren bat edo ikasketaren bat izatea

. Ahal bada, behintzat, herritarra izatea.

. EGA edo baliokidea den agiri izatea.

. Gida baimena izatea baloratuko da.

. Komunikatzaile ona eta teknologia berrietan trebatua izatea

- ZER ESKAINTZEN DA:

. Egun erdiko lan-kontratua eta komisioak

. Noaua! hamaboskariko publizitatearen arduraduna izatea.

Curriculum vitae-a apirilaren 11a baino lehen ekarri edo bidali honako helbideetara: noaua.k.e@euskalnet.net, noaua@topagunea.com edo Noaua! Kultur Elkartea, bordaberri, 3 - 20170 USURBIL.

Beraz, badakizue, lan bila bazabiltza edo zure ingurukoren bat ezagutzen baduzu, deitu lasai edo prestatu zuen curriculumak.

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



TXOTKETIK

- Urte guztian egunero
irekita, astelehenetan izan ezik

- Telf: 943 36 67 10
943 37 06 68

AGINAGA sagardotegia



AGINAGA

Araeta



Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera!

Telf: 943 36 20 49 943 36 66 04
Faxa: 943 36 60 73
Arbirza bidea, 20.160 ZUBIETA
www.araeta.com

ASTIAZARAN sagardotegia



Zubieta, Telf: 943 36 12 29

- Urtarrilaren 9tik aurrera irekita
eguerditan eta gutxitan
- Astelehenetik larumbatera irekita
- Menua: 21 euro

Egin txotx!

Zain duzu aurtengo sagardoa, Txotx!

SAIZAR Sagardotegia

Kale-zahar Auzoa, 33

ZUBIETA
USURBIL
GIPUZKOA

Tel. 943 362 228

www.sidrassaizar.com

